

Elena Basagoitia • Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakaria

«Mundu guztian erreferentzia bilakatu da Tolosako Abesbatzen Lehiaketa»

Tolosako 45. Abesbatza Lehiaketa ostiralean hasi eta igandean amaituko da; aurten, murrizketak medio, lau eguneko egitaraua hirutan utzi behar izan dute antolatzaileek

JON MIRANDA-ASIER IMAZ TOLOSA

Abesbatza Lehiaketa Tolosako Ekinbide Etxeak antolatzen du, eta Elena Basagoitia bertako lehendakaria da. 45. edizioa gogo handiarekin prestatu dute, eta azken egun hauetan «ero moduan» dabilzala dio Basagoitiak. Abesbatza zaleak direnak bertara gonbidatu ditu ekinbideko lehendakariak, eta ez direnak, berdin: «Ziur nago behin joaten baldin badira, errepikatu egingo dutela».

Migel Arretxeren hutsunea nabarmena izango da aurtengo lehiaketan.

Bai, zalantzarik gabe. Lan asko egin duen pertsona bat joan zaigu. Lotura handia eduki du ekinbide etxearekin hasieratik, 1987. urtetik, eta bai, bere falta sumatuko dugu.

45. edizioa da aurtengoa. Gutxi jarriko dute lehiaketaren maila zailtzan?

Nik uste dut mundu guztian zehar erreferentzia dela Tolosako abesbatza Lehiaketa.

Hasiera hura nolakoa izan zen?

Duela 45 urte bitartekoak ez ziren berdinak. Hasieran, lehiaketa xume bat bezala hasi zen, baina pixkanaka-pixkanaka indartzen joan da. Gero eta abesbatza hobeak etortzen hasi ziren, eta bata bestea ekarri, eta hementxe gaude.

Nazioartean, beraz, bere lekua egin du Tolosak.

Bai, eta hori, urtez urte egindako lanaren emaitza da. Nire ustez helburuak argi daude; abesbatza onak hona ekartzea, eta Euskal Herriko musika ezagutu eta ezagutzera ematea.

Bertako herritarrek ere asko ikasi zuten abesbatzen munduz.

Hori argi ikusten da jendea entzute-ra joaten denean; abesbatzen bat entzun orduko normalean badaki ondo edo ez hain ondo abestu duen, eta hori txaloka hastean nabaritzen da. Nik uste, Tolosa eta inguruko herritarrek belarria ondo landuta daukatela.

Antolakuntzarako orduan baliabideak garrantzitsuak dira. Nondik lortzen dituzue?

Azken bost urteetan finantzaketa %40 inguru murriztu da, orduan al-

daketak egin behar izan ditugu. Iaz, ahots taldeak eta haur abesbatzak urtez urte txandatzea erabaki genuen. Lehen, lau eguneko lehiaketa izaten zen, eta aurten, hiru besterik ez dira izango. Gu ere egokitzen ari garela esan beharko dugu.

Noren laguntza izan duzue?

Ekonomikoki gehienbat erakunde publikoena: Kulturako ministeritza, Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Tolosako Udalarena. Horiekin batera, Tolosa Gasa eta *El Diario Vasco* ere laguntzaileen artean daude. Orain arte, beste erakunde batzuen babesa izaten genuen, baina aurten ez dira egongo horiek.

Nola hautatzen dituzue abesbatzak?

Musikariz osatuta batzorde artistiko bat dago, eta hauek urte osoan lanean aritzen dira. Han eta hemengo abesbatza asko entzuten dituzte, baita eskaerak jaso eta aztertu ere. Une honetan, datorren urteko abesbatzekin ari dira lanean.

Abesbatzak zuzenean ikusten al dituzte, edo gaur egun hori ez da beharrezkoa.

Gaur egun internet bidez lan gehiago egiten da, diskoak eta grabazioak entzunez. Garai batean, bai, hara eta hona ibiltzen ziren, baina esan bezala, gaur egungo bitartekoekin hori ez da beharrezkoa.

Tolosan egiten duten egonaldia ere zuek antolatzen duzue.

Alde batetik bidaia dago. Batzuk laguntzak jasotzen dituzte horretarako, eta besteak, euren kabuz moldatzen dira. Gero ostatua, otorduak, eta abar gure kontura izaten dira. Hori guztia lotzeko lan eta azpiegitura asko behar izaten dira.

Lanerako, zenbat lagun mugitzen ditu abesbatzen lehiaketak?

50-60 inguru, eta gehienak boluntarioak dira. Hemendik, gainera, gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, euren laguntzarik gabe abesbatzen lehiaketa hau aurrera ematea ezinezkoa izango baitzen.

Nondik etorriko dira abeslariak?

Hamasei abesbatza etorriko dira: Alemania, Txekia, Espainia, Ameriketako Estatu Batuak, Estonia, Finlandia, Indonesia, Errusia eta Suediatik.



Elena Basagoitia tolosarrari ATARIA Irratiako lankideek elkarrizketa egin zioten herenegun. Irudian, irteerako une bat. A. IMAZ

Europako Sari Nagusiaren zirkuituan dago Tolosako lehiaketa.

Sei herrialderen artean jokatzeko da Europako Sari Nagusia, txandaka. Tolosan 2011. urtean izan zen.

Tolosara itzuliz, lehiaketak zein atal ditu?

Aurten, bi sailetan hartuko dute parte. Alde batetik, haur abesbatzak egongo dira, eta gainontzekoak gainera abesbatza sailean ariko dira. Azken hauen artean, batzuk ahots nahasietan eta besteak ahots berdinekoetan.

Estilo desberdineko obrak ere egongo dira.

Alde batetik, polifonia daukate, eta bestetik, euskal musika eta folklorea. Euskal abesti bat kantatzera behartuta daude, baita norberaren herriko folkloreako bi abesti ere. Polifonian, erdi aroko edo garai bateko abesti batekin batera, XX. mendetik aurrera idatzitako bi obra kantatu behar dituzte.

Haurren abesbatzek urtero jendetza biltzen dute.

Atera orduko saldu dira aurten ere haurren abesbatzako sarrera guztiak. Larunbatean izango da, eta ilusio handia sortzen dute ikusleen artean.

Nondik etorriko dira?

Madriletik, Estoniatik, Errusiatik, Txekiatik, eta Kataluniatik. Guztira zazpi abesbatza izango dira. Normalean 40 haur inguruk osatzen dute bakoitza. Lehiaketan parte hartzeaz

gain, zirkuitu moduko bat egiten dute, bost edo sei kontzertu emanaz Euskal Herrian. Eurentzat oso polita izaten da; etxetik urrun, kultura berri bat, bidaia...

Aurten ez da egongo Euskal Herriko abesbatzarik.

Azken urteetan parte hartu izan dute, baina aurten ez da tokatu, beraz, hurrengoan izango da. Maila bado, eta hori egongo diren kontzertu berezietan ikusiko da, Kea taldeak hartuko baitu parte.

Lehiaketa ostiraletik igandera izango bada ere, topaketak aurreko asteburuan izan ziren.

Abesbatzen Topaketa izaten da lehen ekimen, eta hortik aurrera, dena segidan etortzen da. Ondo atera zen, eta gustura egon ginen bertan. Oñatiko eta Hondarribiko abesbatzak etorri ziren, eta biak oso ondo aritu ziren; kontzertu polita izan zen.

Emanaldi bereziekin jarraituz, larunbatean, lehiaketatik kanpo Camerata Reale ariko da.

Ganbera abesbatza da. Duela urtebete eskas sortu zen, Madriletik Teatro Realeko abesbatza titularraren eta Intermezzo abesbatzako lagunaren artean. Guztira, zortzi herrialde desberdinetako hamabi pertsona osaturik dago. Musika da euren pasioa, eta Leidoren oso kontzertu polita eskainiko dutela uste dut.

Lehiaketara etortzen direnek Leidor aretoa asko gorapatzen dute.

Gustura al zaudete lekuarekin?

Duela urte batzuk egin ziren obrak bukatuta asko irabazi du sonoritatean eta oholztan. Orain ondo dago.

'In Memoriam' antolatu duzue igandean, zergatik?

Hasieran Topic-en zen egitekoa, baina azkenean, San Frantziskon izango da. Sarrera bila jende asko gerturatu da eta Topic txiki gelditu zaigu. *In Memoriam* Iñaki Epelde eta Joselu Andueza omentzeko antolatu dugun kontzertua da, izan ere, bi pertsona horiek lotura handia izan dute Tolosako Ekinbide Etxearekin. Gure esker ona adierazteko izango da omenaldia. Sorpresa bat ere egongo da, pieza berri bat estreinatuko baita.

Azkenik, igandean, sari banaketa ekitaldia eta bazkaria izango dira.

Orduan banatuko dira sari guztiak, eta tartean, nagusia. Irabazleak Europako Sari Nagusian hartuko du parte, Tolosa ordezkatzuz. Ondoren bazkaria izango da, eta agian, hori izaten da momentu politenetakoa. 800 lagun inguru biltzen gara jaialdiari amaiera emateko. Abesbatza guztiez gain, herritarrek egoten dira, izan ere, nahi duenak txartela erosteko aukera dauka.

Txartelak aipatu dituzula, sarreren salmenta nola doa?

Haur abesbatzen lehiaketarako guztiak saldu dira, eta amaiera ekitaldirako gutxi gelditzen dira. Beste emanaldietarako oraindik gelditzen dira, baina salmenta ondo doa.